

Talaia - Itsasbazterra

MAILA

4

ZAILA

HONDARRIBITIK PASAIARA

Itsasertzetik doan etapa ederra da. Itsas hegian bertan abiatzen da, eta halaxe doa Biosnar lurmuturreraino, non uhinak labarretan jo eta hausten diren; pittakapittaka gora doa gero, Jaizkibeleko balkoirantz, itsasoari, tarte batean, atzea emanik. Horren ondoren, mendibizkarrean ibiliko zarete, eskuin oina itsas aldean eta ezkerrean, berriz, barnealdeko euskal mendien alde. Eta amaitzeko, Pasaiako badiaren gaineko ikusmira ederrera helduko.



Talaia

Abiapuntura heltzeko :

Autobidetik Irunera jalgi; segi "Irun, aireportua" seinaleari, gero « Hondarribia » seinaleari. Herria eskuin utzi eta Jaizkibelerako bidea hartu, gero Higer lurmuturrerantz hartu... (GI 3361 errepidea), Higerreko itsasargiaren eta kanpinaren aitzineko aparkalekuan gelditu. Beste aukera da Hendaia laket portuan itsasontzia hartu eta Hondarribiko itsas hegitik arrantza kairaino joan eta handik Higer lurmuturrera igotzea.

Itzultzeko :

Autobusa Errenderira eta handik Hondarribira edo txalupa Sanpedrora eta handik "topoa" (eskualdeko tren txikia) Hendaiaraino, edo taxia Paisaiatik Hondarribira.

0h20 Higer lurmuturreko aparkalekutik (Higer lurmuturra, "Talaia" argibide taula eta "Pasaia, 21km, 6 ordu 55min" dioen zutoina); errepideari paralelo doan bide laua hartu; gero araztegia eskuin utzi. Jaitsiera txiki bat eta gero, gora hasten den bidea utzi eta eskuinetik doan xendra estuagoa hartu. Ikusmira ederrak ditukezue, mendebalderantz, labarretara eta haien oinetan den itsasoari gainean. Egurrezko zaldaina pasa, pinudi batean gora egin eta gero lauean jarraitu, uretik gertuen. Horrela honako puntu honetara helduko zarete : **1** bidegurutzea, (1km). Bide nagusiarri jarraitu; itsasgaineko ikuspegi berri batera iritsi arte. Sigi-saga jaitsi, ura bildurik duen iturri bateraino (txabolak), errekastoa oinez pasa eta harlauza zenbaitetan gora eginik, bide onari lotu berriro eta bidegurutze batera iritsi : ezkerretara utzi Guadalupera doan bidea, eta zuzen jarraitu hilarri baten ondotik (Iker Alberdi) pasatzen den xendrirai. Aitzina segituz, senaia eder baten hondora iritsiko zarete (pinguinoen behatokia). **2** Artzu senaia, (3,2km). Ezkerretara utzi berriro ere Guadalupera doan beste bidea eta zuzen behera jarraitu Artzuko porturaino. Kanadar langa bat pasa eta zuzen jarraitu, balkoi batetik (Argorri muturra, eskuinean). Erliebe leunagoko belar eta iratzeko larreak zuzen-zuzen zeharkatu. Ezkerretara utzi, Justitzera daraman pista (1h25, 4,4km). Zuzen jarraitu; erreka bat zeharkatu, lehenik, eta gero kanadar langa bat. Handik gutxira, (1h35; 5,2km), eskuinerantz jaisten den xendra hartu. Hirugarren kanadar langa zeharkatu; ezkerretara harlauza eder-eder bat duzue, zulatua eta laranja kolorea; ezkerretarantz igo, lehenik, eta gero erabat eskuinerantz eta harkaitz handi-handien artean pasa. Behe-ibarrera (thalweg) jaitsi (txabolak) eta eskuinerantz igo; erlaitzño bat pasa, itsasoan luze sartzen den mutur batez amaitzen den belardi handi bateraino : **2h10** **3** Biosnar lurmuturra, (7,2km). Hor itsas hegia utzi eta ezkerretara hartu (gero hegoalderantz), pista batean gora. Mendate bateraino heldu (25') eta malda ezti batean eskuinetik jarraitu, pista zabalago batean; eraikin tekniko batera heldu (teila gorritzko teilatua). Minutu baten ondoren, pisten bidegurutze batera helduko zarete (235m, 2h50; 9,2km) :

3h00

4h05


5h20


6h30

6h55

pista on bat hartu, zuzen-zuzen eta lau eta 700m inguru egin; behe-ibar bat zeharkatu; beste behe-ibar batera hurbildu, eta pasa gabe, pista utzi eta ezkerretara igo, Pasaiarantz doan bide on batetik. **4** bidegurutzea, (9,7km). Sigi-saga ibili, pinudi bat zeharkatu eta han-hemen zabalduko harkaitzetan zizelkaturiko atari naturala pasa. Kanadar langak eta zaldainak tarteka pasa, gero eskuin, beheraka ezteki daraman pista hartu (3h30; 11,8km). Ikuspegi eder-ederra; pista zabal horretan oraindik beste 500m egin eta, betoizko hibi batera heldurik, pista utzi eta ezkerretara, gora, Pasaiarantz doan xendra hartu (kanadar langa). Berehala, bi herrien arteko « muga » gaindituko duzue. Pinu handi, ederrak dituen pinudia zeharkatu; ezkerretara egin (hegoalderantz), kanadar langa bat pasa eta gero errepide bat zeharkatu. **5** errepidea, (12,7km). Kanadar langa zenbait trabeskatu eta hego-mendebalderako xendrirai jarraiki, errepidearen gainetik joan. GR bideko bidegurutze batera heldu, zuzen jarraitu, gotorleku zahar baterantz (bigarren dorrea, 5h00, 15km). Zuzen-zuzen, mendibizkar zabal batean jarraitu, mendebalderantz, eta konkortxo bat igo. Eskuin aldera hartu, ezkerretara beste gotorleku bat utzi; pinudi eder bat pasa eta errepidera heldu. **6** errepidea, (16,2km). Errepidea zeharkatu eta beste aldean, zertzobait gora doan bidea hartu; kanadar langa bat pasa, erreka batera jaitsi eta arizti eder batetan zehar, berriz gora egin; ezkerretara utzi arditegi zahar baten hondakinak eta gorago, zelaietan sakabanaturiko harkaitzetara iritsi. Hortik, eskuin, ezteki gora doan pista hartu; itsas hegira helduko zarete, baina lehen baino higitz gorago. Kanadar langa pasa eta ezkerrean jaisten den xendra hartu (eskuinean, harkaitzak, itsasoaren gainean). Zuzen-zuzen jarraitu (mendebalderantz), haitz muturraren luraren aldetik ibiliz, itsasargiraino joanik (Pasaiako badiaren gaineko ikuspegi harrigarria). **7** itsasargia (19,2km). Hortik ezkerretara, pendiz gaitza jaitsi, betoizaturiko malda batean, are eta badiara sartzean, uraren mailan izan arte. Atari baten pean pasa eta Pasaiara sartu, herri barneraino joanez, elizaren ondoren den plaza txoaren ezkerretara den herriko etxeraino, hain zuzen: Pasaia, (21 km).



 **Hondarribia – Higer lurmuturra**

 **7h**

 **21km**

 **780m**

Bide seinaleak :  GR121aren zuri-gorria.

Ikusi beharrekoa :

- Higer lurmuturra, Pirinioen mutur mendebaldekoa.
- Elkarren jarraian diren senaia txikiak.
- Jaizkibel menditik den ikuspegia.
- Pasaiarako jaitsiera.
- Oraindik ukitu gabe den kostaldea.

Aholkuak : Ibilbide osoan ez da ur hartuerik ; kasu eman ere, baldin haize bortitza badabil, etaparen amaieran diren aire zabaleko igarobideetan !

Hondarribia.

Herria Hendaia irburuz buru da, Bidasoaren beste aldean. Portu auzoak karrika zaharrak, terraza loradunak eta arrantzale etxetxoak ditu, zuri-zuri karezaturiko etxe txikiak, kolore biziz tindatuak. Goialdean, hiri zaharra, historiaz blaituriko harresietan bildurik da ; horien babesera eraikiak dira etxe meharrek, XVI. eta XVII mendeetako egoitza guztiz ederrak eta bereziki Arma Plaza ikusgarria.



Hondarribia



Informazio osagarriak honako leku honetan :

- Hondarribiko Turismo Bulegoa
Tél : 00 34 943 643 677 - www.hondarribiaturismo.com
- Pasaiako Turismo Bulegoa
Tél : 00 34 943 341 556 - www.victorhugopasaia.net

Milesker egileari : Bruno Marin – Randonades.

